

LAN-HITZARMEN BERRIA: LAN BALDINTZA DUINETAN OINARRITUTAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKO KOMUNITARIOA ERAIKITZEKO BITARTEKOA

Lan-hitzarmen berriaren negoziazioa EAEko Hezkuntza Lege berriak, kontrolik gabeko inflazioak, ikastoletako langileen lan kargaren igoerak eta beste hainbat faktorek baldintzatuko dute.

Irailaren 27ko Lan-hitzarmeneko mahaian LAB sindikatutik, besteren artean, **lan-hitzarmen berrirako honako eskakizun nagusiak** egin ditugu:

1) Titulartasun publikoko ikastetxeetako langileekiko homologazio bidean, KPIaren igoeraren araberrako soldata altxaketak. Ondorioz, ordainketa eskuordetutik gorako lansari igoerak eskatu ditugu. Kategoria prekarizatuenetan, hala nola, zerbitzuetako langileentzat, 0-3ko langileentzat eta Hezkuntza Laguntza Espezialistentzat igoera handiagoak exijituz. Era berean, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen soldata igoerak Bigarren Hezkuntzako irakasleenak baino altuagoak izatea eskatu dugu.

2) Lan karga arintzeko neurrien artean urteko lanorduetan jaitsierak eskatu ditugu.

- **Irakasleen eta Hezkuntza Laguntza Espezialisten kasuan** 1293 ordutik 1260 ordutara.
- **0-3ko hezitzaileen eta zerbitzuetako langileen kasuan** 1585 ordutik 1550 ordutara.

Haur Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako tutoreen **eskola orduak astean ordu betez jaitea** eskatu dugu. Bestetik, ordu osagarri eta prestaketa orduak areagotzea eskatu dugu bereziki HLEn eta 0-3ko langileen kasuan. Bukatzeko, 58 urtetik gorako langileentzat astean eskola orduak 5 orduz murriztea ere eskatu dugu.

3) Zaintzarako baimen eta lizentzia gehiago eskatu ditugu:

- Guraso bakarrek familietan, **guraso bakarrak bi gurasoen baimenak pilaturik hartzeko aukera** izatea.
- **Edoskitze aldia 12 hilabetera luzatzea.** Lizentzia hau **modu pilatuan hartuz gero, 4 asteko** lizentzia izatea.
- Langile guztiek urtean zehar oraindutako bi lanegun izatea, zerbitzuetako langile eta 0-3ko langileen kasuan lau egun.

“KPIaren araberrako soldata altxaketak eskatu ditugu”

“Urteko lan orduetan jaitsierak eskatu ditugu”

“Borroka eta mobilizazioa beharrezkoak izango dira”

4) Kontratazio eta plantillen egonkortzeari dagokienez eskari hauek egin ditugu:

- **Ikastolen Elkarteari nazio irizpideak bere kontratazio irizpideetan txertatzea** eskatu diogu. Bestetik **eszedente eta beharren prozeduran langile finko guztiak sartzeko** nahia adierazi dugu.
- **EIBri** berdintasun, gaitasun eta gardentasun printzipioetan oinarritutako **Kontratazio Batzorde parekideak sortzea** eskatu diogu. Era berean, eszedente eta beharren prozeduratik salbuesten dituen xedapen gehigarria hitzarmenetik kentzea exijitu dugu.

5) Langileen erretiroari dagokionez, langileentzat onuragarriena den formulaz, hau da, 75-25 modalitatean errelebo kontratuak gauzatzea eskatu dugu. Bestetik, erretiro aurreratua hartu nahi duten langileentzako pizgarri hauek handitzea eskatu dugu.

Ikastolek gure eskakizunak aztertu eta hilabeteko epean lehen erantzun bat emateko konpromisoa hartu zuten. **Eskakizun guztiak** erdiesteko testuingurua erraza ez izan arren, ikastoletako langileok asko dugu irabazteko. **Merezi dugun lan-hitzarmena izateko borroka eta mobilizazioa beharrezkoak izango dira.**

LAB IKASTOLETAKO LANGILEEN ESKUBIDEEN ALDE! GORA LANGILEON BORROKA!

